

Andoaingo Udala

Kalegarbitzailea

Lehenengo ariketa

2018/01/25

- 1 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN EGOKIENA. KALE-GARBIKETA DIOGUNEAN, ZER ESAN NAHI DUGU?**
- 1a) Espaloi, galtzada, pasealeku eta plazetatik hondakinak kentzea.
 - 1b) Hiri-altzarietako elementuetatik hondakinak kentzea.
 - 1c) Hondakinak kentzea, kargatzea eta zabortegira garraiatzea.
 - 1d) Animalien gorutzak kentzea.
- 2 ZER JOTZEN DA "GARBIKETA BEREZIKO" LANTZAT?**
- 2a) Espaloiak erraztatzea.
 - 2b) Fatxadak eta grafitiak garbitzea.
 - 2c) Galtzadak garbitzea.
 - 2d) Plazetatik hondakinak kentzea.
- 3 HIRI BATEN GARBITASUN-MAILAREN PERTZEPZIOA ZERTAN OINARRITZEN DA, BATEZ ERE?**
- 3a) Herritarrek garbitasun-sentsazioa izatea kaleetan.
 - 3b) Kale-garriketa zerbitzuko langileen kualifikazio profesionalaren maila.
 - 3c) Kaleak, plazak, galtzadak eta bizitegi-guneak zer maiztasunez garbitzen diren.
 - 3d) Produktu kimiko ez-kutsatzaileak erabiltzea.
- 4 HIRI GEHIENETAN, ZONA HAUEK BEREIZ DAITEZKE GARBIKETA-ZERBITZUKO LANAK EGITERAKOAN:**
- 4a) Erdialdea, biztanleria-kontzentrazio handikoa.
 - 4b) Zona turistikoa eta monumentala.
 - 4c) Zona periferikoa, biztanleria-kontzentrazio txiki-ertainekoa.
 - 4d) a) eta c) erantzun zuzenak dira.
- 5 KALEKO GARBIKETA-LANAK EGITERAKOAN, ZEIN DA MUGARIK HANDIENAK DAKARTZAN FAKTOREETAKO BAT?**
- 5a) Hirien kutsadura-maila handia izatea.
 - 5b) Kaleko garriketa-lanak egiteko baliabide materialik ez izatea.
 - 5c) Hiri-garriketarako langilerik ez izatea.
 - 5d) Hirien azpiegitura.
- 6 NOLA ESATEN ZAIO BANAKA EGITEN DEN ERRAZTATZEARI, IBILGAILU LAGUNGARRIAREKIN EDO GABE EGINDAKOARI?**
- 6a) Erraztatze mekanikoa.
 - 6b) Eskuzko erraztatzea.
 - 6c) Erraztatze mistoa.
 - 6d) Erraztatze berezia.

- 7** **POLTSAK ERAMATEKO ORGA, PALA ETA KALE-ERRATZAK ERRAZTATZE-MOTA JAKIN BATEAN ERABILTZEN DIREN TRESNAK ETA LANABESAK DIRA. ZER ERRAZTATZE-MOTATAN ERABILTZEN DIRA?**
- 7a) Mekanikoa, herrestatze-bidezkoa.
 - 7b) Mistoa, galtzadan.
 - 7c) Mekanikoa.
 - 7d) Eskuzkoa.
- 8** **KALE BATEAN, IBILGAILURIK APARKATUTA EZ BADAGO, ZER ERRAZTATZE-MOTA GOMENDATZEN DA?**
- 8a) Erraztatze mekanikoa.
 - 8b) Eskuzko erraztatzea, brigadarekin.
 - 8c) Eskuzko erraztatzea, banaka.
 - 8d) Erraztatze mistoa, beti.
- 9** **ESKUZKO EKORKETA (BARRIDO) BRIGADAK LAGUNDUTA EGITEN DENEAN:**
- 9a) Langile batek edo bat baino gehiagok banan bana erratza pasatzen dute inguruz inguru, eta, bitartean, beste batek, hondakin-piloak bildu, eta kamioira eramaten ditu.
 - 9b) Oinarrizko garbiketa-lanen ondoren leku batzuk ez direnez ondo-ondo geratu, pertsona batek leku horietan erratza pasatzen du.
 - 9c) Langile batek egiten du ekorketa, eskuz; baina badu ibilgailu txiki bat, batetik bestera joateko eta hondakinak kargatzeko.
 - 9d) Langile batzuek inguru berean erratza pasatzen dute banan bana, eta bakoitzak bere hondakinak berariaz jarritako kamioi batera husten ditu.
- 10** **GALTZADEK, ESPALOEK, PLAZEK ETA OINEZKOEN EREMUEK GUTXIENEO ZABALERA BAT IZAN BEHAR DUTE ERRAZTATZE MEKANIKOA EGITEKO. ZEIN ZABALERA?**
- 10a) 1 metro.
 - 10b) 2 metro.
 - 10c) 3,50 metro.
 - 10d) 4 metro.
- 11** **ZIKINKERIA-MAILA HANDIA DAGOEN ZONETAN, HALA NOLA INDUSTRIALDEETAN, ZER ERABILTZEA GOMENDATZEN DA?**
- 11a) Herrestatze bidezko erraztatzaile mekanikoa
 - 11b) Xurgatze bidezko erraztatzaile mekanikoa.
 - 11c) Eskuzko erraztatzea, brigadarekin.
 - 11d) Erraztatze mistoa, espaloian.
- 12** **ZUTIKAKO PAPER-ONTZIAK NON ERABILTZEN DIRA GEHIEN?**
- 12a) Erabilera orokorreko lekuetan.
 - 12b) Hondakin asko sortzen diren lekuetan.
 - 12c) Leku gatazkatsu jakin batzuetan.
 - 12d) Hondakin gutxi sortzen diren lekuetan.



13 PAPER-ONTZIAK JARRAIAN DAUDENEAN, ZER TARTE UTZI BEHARRA DAGO BATETIK BESTERA?

- 13a) Jendea bizi den lekuetan, 100 metro.
- 13b) Leku komertzialetan, 100 metro.
- 13c) Jendea bizi den lekuetan, 60 metro.
- 13d) Leku guztietan 60 metro.

14 "HIRI-HONDAKINEN" DEFINIZIO ZUZENA NAHI DUGU:

- 14a) Hondakin arriskutsu modura kalifikaturik ez daudenak.
- 14b) Diren bezalakoak izanik edo daukaten osaera dela-eta, denda, bulego edo etxeetako hondakinen pareko jo daitezkeenak.
- 14c) Etxeetan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortzen direnak.
- 14d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

15 HAUETAKO ZEIN JOTZEN DIRA HIRI-HONDAKIN?

- 15a) Etxeko animalia hilak.
- 15b) Sendagaiak.
- 15c) Telefono mugikorrek.
- 15d) Pilak.

16 HIRI-HONDAKINEN GAIKAKO BILKETAN, ZERTARAKO DIRA EDUKIONTZI HORIAK?

- 16a) Beirarako.
- 16b) Ontzi arinetarako.
- 16c) Metaletarako orokorrean.
- 16d) Kristaletarako eta metal arinetarako.

17 GAIKAKO BILKETAN, ZER SARTU DAITEKE EDUKIONTZI BERDEAN?

- 17a) Bonbillak.
- 17b) Kristalezko irudiak.
- 17c) Beirazko botilak.
- 17d) Ispiluak.

18 JAIEGUNETAKO ETA EKINTZA BEREZITAKO GARBIKETAN...

- 18a) Garbiketa-zerbitzuak larrialdietako osasun-zerbitzuekin koordinatu beharko dira.
- 18b) Herrestatze bidezko erraztatze mekanikoa egingo da beti.
- 18c) Garbiketako langileek jantzi eta garbiketa-ekipo bereziak erabili beharko dituzte.
- 18d) Hiri-guneak berehala garbitu beharko dira ekintza egin ondoren.

19 ESAN ZEIN DEN ERATZUN OKERRA. MERKATUEN GARBIKETAN:

- 19a) Zaborren eta hondakinen biltegi bat egon behar da, horien beharretarako gaitasun nahikoa duena.
- 19b) Merkatu barruko kaleak eta ingurua eskuz baldekatuko dira.
- 19c) Merkatuko instalazioen barruko bideetako espaloiak ez dira garbituko.
- 19d) Lokal bakoitzak bere garbitasuna eta mantenimendua zaindu behar du, salmentak irauten duen artean.

- 20 MERKATUEN GARBIKETAZ ARI GARELA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**
- 20a) Salmenta-egunak irauten duen bitartean egingo da garbiketa.
20b) Hondakinak mekanikoki bilduko dira eta baldeketa mistoa erabiliko da.
20c) Merkatu barruko kaleak eta ingurua eskuz baldekatuko dira.
20d) Salmenta-egunean zehar hondakinak etengabe erretiratuko dira, eta baldeketa hurrengo egunean egingo da.
- 21 LAN HAUETAKOREN BAT EZ DAGOKIO PARKE ETA LORATEGIAK GARBITZEARI:**
- 21a) Paperontziak hustea.
21b) Grafitiak garbitzea.
21c) Jausitako hostoak eta adarrak kentzea.
21d) Azaleko drainatzeak garbitzea.
- 22 ARRISKU METEOREOLOGIKOAREN MAILA LARANJA ZEIN DEN JAKIN NAHI DUGU:**
- 22a) Arrisku meteorologikoa muturrekoa da (ezohiko fenomeno meteorologikoak, aparteko indarrekoak eta herritarrentzako oso arriskutsuak).
22b) Ez dago arrisku meteorologikorik.
22c) Arrisku meteorologiko garrantzitsua (ezohiko fenomeno meteorologikoak, baita nolabaiteko arriskua ere ohiko jardueretarako).
22d) Orokorrean ez dago herritarrentzako arriskurik, baina bai jarduera jakin batzuetarako (ohiko fenomeno meteorologikoak baina arriskutsuak izan daitezkeenak) edo oso erraz kaltetu daitezkeen lekuetarako.
- 23 IZOTZA EGITEN DUENEAN, BATZUETAN, HAIZE HOTZA IRAULI EGIN DELAKO ETA, ALDI BEREAN, IRRADIAZIOA DELA-ETA LURREKO BEROA GALDU EGIN DELAKO IZATEN DA. ZER IZEN DU IZOTZ HORREK?**
- 23a) Adbekzio-izotza.
23b) Irradiazio-izotza.
23c) Lurrinketa-izotzak.
23d) Izotz mistoa.
- 24 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEA: HITZ EGIN DEZAGUN LANGILEEK PREBENTZIO-ARLOAN IZAN BEHAR DUTEN PRESTAKUNTZAZ. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**
- 24a) Prestakuntzak langile bakoitzaren lanpostuan edo zereginen oinarriturik egon beharko du berariaz.
24b) Ahal dela, prestakuntza lanalditik kanpo egin beharko da.
24c) Ezin da kanpoko zerbitzurik erabili prestakuntza emateko.
24d) Langilea bitartekoa edo aldi baterakoa baldin bada, berak ordainduko du prestakuntza.
- 25 NORK ORDAINDU BEHAR DITU LANEKO SEGURTASUN- ETA OSASUN-NEURRIEN KOSTUAK?**
- 25a) Enpresa bakoitzeko lan-hitzarmenean zer jartzen duen ikusi behar.
25b) Langileek inola ere ez.
25c) Banakako ekipamenduak direnean, langileek.
25d) Erantzun bat ere ez da zuzena.

- 26 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA:**
- 26a) Zer joko da «laneko ekipotzat»? Lanean erabiltzen den edozein makina, tresna, instrumentu edo instalazio.
- 26b) Zer joko da «laneko arriskutzat»? Lana dela-eta langileak min hartzeko aukera egotea.
- 26c) Zer joko da «lanetik eratorritako kaltetzat»? Lanean edo lana dela bide izandako gaixotasun, patologia edo lesioak.
- 26d) Aurreko erantzun horiek guztiak zuzenak dira.
- 27 KONTU EGIN DEZAGUN KARGAK ESKUZ ERABILI BEHAR DITUGULA. ZEIN DA OKERREKO ERANTZUNA?**
- 27a) Kargak enborretik urrun erabili behar ditugu.
- 27b) Bizkarra zuzen dugula erabiliko ditugu kargak.
- 27c) Kargak erabili behar ditugunean, ahal dela, gorputza biratu gabe edo makurtu gabe egingo dugu.
- 27d) Aitxaldiak leun egin behar dira, batetik bestera tarte bat utziz.
- 28 IKUS DEZAGUN DEFINIZIO HAU: "LANGILEAREN OSASUNERAKO ARRISKUA SORTZEAREKIN ZERIKUSI GARBIA DUEN GORABEHERA ORO". ZER KONTZEPTU DEFINITZEN DU?**
- 28a) Arriskua.
- 28b) Arrisku-faktorea.
- 28c) Lan-baldintza.
- 28d) Elementuen menpe egotea.
- 29 ZER HARTU BEHAR DA KONTUAN, KALTEA ZEIN HANDIA EDO LARRIA IZAN DAITEKEEN ZEHAZTEKO?**
- 29a) Gorputzeko zer atali eragingo dion.
- 29b) Kaltea nolakoa den, txikitik oso handira sailkaturik.
- 29c) Kaltea gertatzeko dagoen probabilitatea.
- 29d) a) eta b) erantzunak dira zuzenak.
- 30 ZEIN DA OKERREKO ERANTZUNA? ZER GOMENDATZEN DA INORK EZ DEZAN KOLPERIK, EBAKIRIK EDO ZIZTADARIK JASAN OBJEKTUEKIN EDO LAN-TRESNEKIN?**
- 30a) Kristal apurtu, kutxilla edo antzeko gauzarik eskuz biltzea.
- 30b) Paper-ontziak kontu handiz hustea, batez ere ez badugu ikusten zer dagoen barruan.
- 30c) Erabili behar ez direnean lan-tresnak behar bezala gordetzea.
- 30d) Lan-tresna bakoitza den horretarako erabiltzea.
- 31 ADMINISTRATIBOKI ZERBITZU AKTIBO BETEAN DAGOEN FUNTZIONARIOAK, ZENBATEKO OPORRALDI ORDAINDUA IZATEKO ESKUBIDEA IZANGO DU, LANEAN EMANDAKO URTE OSO BAKOITZEKO?**
- 31a) 22 lan-egun.
- 31b) 24 lan-egun.
- 31c) 26 lan-egun.
- 31d) 28 lan-egun.

- 32 LANALDIZ KANPO EGINDAKO ORDU BAKOITZEKO, OROKORREAN, ORDAINEAN ZENBATEKO ATSEDENA EMANGO DA?**
- 32a) Lan-eguna bada, ordu eta laurden.
32b) Lan-eguna bada, ordu eta erdi.
32c) Lan-eguna bada, ordu eta hiru laurden.
32d) Lan-eguna bada, bi ordu.
- 33 EZKONTIDEAK EDO SEME-ALABEK ISTRIPUA EDUKIZ GERO, EDO GAIXOTASUN LARRIA, EDO OSPITALERATU BEHARRA (JUSTIFIKATURIK), ZER LIZENTZIA EMANGO DA?**
- 33a) 6 egun baliiodun.
33b) 5 egun baliiodun.
33c) 4 egun baliiodun.
33d) 3 egun baliiodun.
- 34 ERAKUNDEKO FUNTZIONARIOEK LANSARI-KONTZEPTU BATZUK JASO DITZAKETE. HAUETAKO ZEIN EZ?**
- 34a) Dedikazio eskusiboko osagarria.
34b) Destino-osagarria.
34c) Berariazko osagarria.
34d) Produktibitate-osagarria.
- 35 ADIERAZI ZEIN DEN OKERREKO ERANTZUNA. INTERESDUNARI DATU PERTSONALIK ESKATUZ GERO, OROKORREAN AURRETIAZ ZER AZALDU BEHAR ZAIO BERARIAZ, ZEHATZ-MEHATZ ETA ARGI ETA GARBI:**
- 35a) Badela datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu bat; datuak zertarako eskatzen zaizkion; eta informazio hori norentzat den.
35b) Datuak eskuratzeak edo emateari uko egiteak zer ondorio izango dituen.
35c) Baduela eskubidea datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta aurka egiteko.
35d) Tratamenduaren arduraduna nor den eta zer helbide duen.
- 36 DATU PERTSONALAK TRATATZEN PARTE HARTZEN DUTENEK (EDOZEIN FASETAN DELARIK ERE) SEKRETU PROFESIONALA BETE BEHARRA DAUKATE HAIKIKO:**
- 36a) Datuak tratatzen dituzten bitartean.
36b) Harik eta fitxategiaren titularrarekiko edo arduradunarekiko duten harremana amaitu arte.
36c) Eta hala izaten jarraituko dute, baita fitxategiaren titularrarekiko edo arduradunarekiko harremana amaitu ondoren ere.
36d) Soilik fitxategiaren titularrak edo arduradunak idatziz eskatzen duenean.
- 37 INTERESDUNAK DATUAK ZUZENTZEKO EDO INDARRIK GABE UZTEKO ESKUBIDEA BADU, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK ZER EPE DU ESKUBIDE HORI EGIKARITZEKO?**
- 37a) 10 egun.
37b) 15 egun.
37c) Hilabete.
37d) 3 hilabete.

38 ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA:

- 38a) Datu pertsonalek zehatzak eta eguneratuak izan behar dute, dena delako pertsonaren egungo egoera egiaz islatzeko moduan.
- 38b) Bildu edo erregistratu ziren horretarako jada beharrezkoak edo baliokoak ez direnean, datu pertsonalak gorde egingo dira.
- 38c) Debebatuta dago bitarteko iruzurtiak, desleialak edo bidegabeak erabiliz biltzea datuak.
- 38d) Datu pertsonalak biltegitatu egin behar dira, haietara iristeko eskubidea erabiltzeko moduan, non eta ez diren legez baliorik gabe uzten.

39 4/2005 LEGEAREN ARABERA, PERTSONA BAT, HAREN SEXUA DELA-ETA, ANTZEKO EGOERAN DAGOEN BESTE PERTSONA BAT BAINO MODU TXARRAGOAN TRATATU DENEAN EDO TRATATU DAITEKEENEAN, ZER EGONGO DA TARTEAN?

- 39a) Diskriminazio positiboa.
- 39b) Sexuan oinarritutako diskriminazioa.
- 39c) Zuzeneko diskriminazioa.
- 39d) Zeharkako diskriminazioa.

40 HAUETATIK ZEIN EZ DAUDE EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL HERRI-AGINTEEN JARDUKETA GIDATU ETA BIDERATUKO DUTEN PRINTZIBIO OROKORREN ARTEAN?

- 40a) Ordezkaritza orekatua.
- 40b) Aukera-berdintasuna.
- 40c) Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.
- 40d) Genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa.

ORDEZKO GALDERAK

41 BEGIRA DEZAGUN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAN (4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA):

- 41a) Pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek, gutxienez, % 40ko ordezkariak dutenean.
- 41b) Pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek, gutxienez, % 30eko ordezkariak dutenean.
- 41c) Pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek, gutxienez, % 33ko ordezkariak dutenean.
- 41d) Pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek % 50eko ordezkariak dutenean.

42 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA:

- 42a) Debebatuta dago inor sexuan oinarrituz diskriminatzea, baina nola egiten den gorabeheran.
- 42b) Debebatuta dago sexuan oinarritzen den zuzeneko diskriminazio oro, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.
- 42c) Debebatuta dago inor sexuan oinarrituz inola ere diskriminatzea, ez zuzenean ez zeharka, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.
- 42d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

43 ZEINTZUK DIRA ANDOAINGO IBAI NAGUSIAK?

- 43a) Buruntza eta Belkoain.
- 43b) Usobelartza eta Adarra.
- 43c) Leitzaran eta Oria.
- 43d) Bidasoa eta Ibaizabal.

44 ADIERAZI ZEIN MONUMENTU HISTORIKO DAGOEN ANDOAINEN.

- 44a) Mengako trikuharria.
- 44b) Usobelartzako monolitoa.
- 44c) Torayako megalitoa.
- 44d) Busnelako trikuharria.

45 NORAINO IRISTEN DA PLAZAOLAKO BIDE BERDEA?

- 45a) Andoaindik Berastegira.
- 45b) Andoaindik Leitzara.
- 45c) Andoaindik Villabonara.
- 45d) Andoaindik Lesakara.